

EAEko IRAKASLEAK

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Maisu-maistren behin betiko onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratu dute.

Maisu-maistren kidegoan behin-behineko destinoen esleipena gaur argitaratuko dela jakinarazi digu Administrazioak. Erreklamazioa aurkezteko epea: maiatzaren 15etik 21era izatea aurreikusten da.

Maiatzaren 9an argitaratu zuten lanpostu hutsen behin-behineko zerrenda. Interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute 5 laneguneko epean, Tramitagune bidez.

Gainerako kidegoenak laster aterako dituzte.

URTE SABATIKOA

Deialdiaren ebazpena gaur argitaratu da. Hezkuntzaren web orrian onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratu dituzte. [Lotura](#).

ZERBITZU-EGINKIZUNAK (IRALE)

Balorazio Batzorde Teknikoak merezimenduen inguruko zehaztapenak argitaratu ditu. Horrez gain, ahozko defentsa egiteko deialdia zabaldu dute. [Lotura](#).

EAEko IRAKASLE ETA LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEAK

IRALE

2024-2025 ikasturterako eskabidea egiteko epea zabalik dago. [Lotura](#).

R, U, 3000, 4000, 5000, AU-EU, A-E: **maiatzaren 11tik 31ra**, biak barne.

H-I: **maiatzaren 14tik ekainaren 3ra**, biak barne.

Irakastorduz kanpoko ikastaroen deialdiak ere argitaratu dituzte. [Lotura](#).

- Goi-mailako ikastaroak (H-I)
Eskabidea egiteko epea: **maiatzaren 14tik ekainaren 3ra**, biak barne.
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko udako ikastaroak (AU-EU)
Eskabidea egiteko epea: **maiatzaren 11tik 31ra**, biak barne.
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ikasturteko ikastaroak (A-E)
Eskabidea egiteko epea: **maiatzaren 11tik 31ra**, biak barne.

LGTBIQ FOBIARIK EZ!!!

www.steilas.eus